

XXX/2022 Dekretua, XXXXXaren XX(e)koa, Haur Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa

Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunak (2000) 14. artikuluan ezartzen du pertsona guztiak dutela hezkuntzarako eskubidea –barne dela derrigorrezko hezkuntza, prestakuntza eta etengabeko ikaskuntza inklusiboa eta kalitatekoa doan jasotzeko ahalmena–, beren bizitza-proiektuan arrakasta lortzeko gaitasunak eskuratu eta mantentzeko gizartean bete-betean parte hartzeko.

Haur eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko Legeak (otsailaren 18ko 3/2005 Legea) ezartzen du haur eta nerabe guztiak dutela hezkuntzarako eta irakaskuntzarako eskubidea. Bestalde, ekainaren 4ko 8/2021 Legeak (Haurrak eta nerabeak indarkeriartik modu integralean babestekoa) adierazten du funtsezkoa dela haurren eta nerabeen giza duintasuna eta integritate fisikoa eta psikologikoa errespetatzen direla ziurtatzea eta errespetu daitezen sustatzea, indarkeria-mota ororen prebentzioaren bidez. Ildo horretan, familia eta eskola dira haurren hezkuntza-prestakuntzaren funtsezko bermatzaileak.

Abenduaren 29ko 8/2020 Lege Organikoak (Hezkuntzaren kalitatea hobetzekoa, maiatzaren 3ko 2/2006 Legea (Hezkuntzarena) aldatzen duena) curriculumaren kontzeptuari eta irteera-profilari buruzko aldaketak sartu ditu. Bestalde, eskumen-banaketa berria izan da Estatuaren eta autonomia-erkidegoen artean, eta horrek funtsean aldatzen du Haur Hezkuntzako curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko abenduaren 22ko 237/2015 Dekretuan (2016ko urtarrilaren 15eko EHAA) ezarritakoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 16. artikulua irakaskuntzaren gaineko eskumena esleitzen dio Euskal Autonomia Erkidegoari, irakaskuntzaren osotasunean, maila eta gradu guztietan eta modalitate eta espezialitate guztietan. Eskumen horretaz baliatuta, Hezkuntza Sailak Haur Hezkuntzari dagokion curriculuma onartu du Euskal Autonomia Erkidegoan.

Euskararen Legea (10/1982 Legea, azaroaren 24koa, euskararen erabilpena arautzen duena) da euskal ikasle guztiak euskaraz zein gatzelaniaz behar adinako komunikazio-kompetentziarekin moldatzeko ahaldunduko dituen konpetentzia eleaniztunean aurrera egiteko tresna. Era berean, Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen (otsailaren 19ko 1/1993 Legea) helburu hau dago jasota: derrigorrezko irakaskuntza-aldia amaitzean bi hizkuntza ofizialen ezagutza praktikoa baldintza-berdintasunean bermatzea, euskararen erabilera bultzatuz eta, horrela, euskararen erabilera normalizatzen lagunduz, euskara hezkuntza-komunitatearen jardura guztietan ohiko adierazpide gisa erabil dadin.

Dekretu honen bidez curriculuma zehaztearen helburua da euskal hezkuntza-sisteman lortutako hezkuntza-mailak hobetzea, eguneratze pedagogikoa ahalbidetzea eta XXI. mendeko erronka handiei erantzungo dieten hezkuntza-xede berriak bultzatzea, Euskadi Basque Country 2030 Agendaren barruan. Hori guztia 2030erako Garapen Iraunkorrerako Helburuekin (UNESCO) bat etorri, eta, zehazki, 4. helburuarekin (“Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea”), eta etengabeko ikaskuntzarako funtsezko konpetentziei buruzko Europar Batasuneko Kontseiluaren Gomendioarekin (2018) bat.

Haur Hezkuntza etapa bat da berez, zeinean garapen pertsonal, emozional, intelektual eta sozial azkar eta konplexua gertatzen baita, eta zeinari hezkuntza-komunitate osoak erreparatu behar

baitio. Hezkuntza-komunitatearen parte-hartzea eta inplikazioa, eta bereziki maisu-maistren eta familien arteko koordinazioa, funtsezkoak dira etapa honetan.

Haurren heldutasunaren, emozioen, gizarteratzearen eta ikaskuntzen bilakaeraren jarraipena egitea ezinbestekoa da ikasleen oraingo eta etorkizuneko hezkuntza-arrakasta bermatzeko. Haur Hezkuntzak, gainera, Derrigorrezko Oinarrizko Hezkuntzan sartzea erraztuko duten oinarriak ezartzen ditu.

Dekretu hau idazteko, funtsezkoak izan dira Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatu den hezkuntza-ibilbidea; inklusibitatearen aldeko apustua; hezkuntza-komunitateak partekatu eta bultzatu dituen eleaniztasuna eta kultura pedagogikoa; hezkuntza-erantzukizun baterakoa eta kolaboratiboa; eta euskal testuinguruaren hezkuntza-erronkekin bat datorren euskal eskari soziala, hezkuntza-sistemaren kalitatea etengabe hobetzeko eta hezkuntza-sistema propioa bikaintasunaren mailetan kokatuko duten emaitzak eskatzeko.

Hezkuntza-eredu pedagogikoaren esparru berriak Heziberri 2020 ereduan du jatorria. Heziberri 2020ren zeharkako eta diziplinako konpetentziek bat egiten dute, konpetentzia-eredu integratua sortuz, eta funtsezko konpetentzien eta konpetentzia espezifikoaren bidez definitzen dira, Europar Batasuneko Kontseiluaren gomendioari (2018) jarraituz.

Gure hezkuntza-ereduaren hobekuntzan aurrera egiteko bidean, honako ildo estrategiko hauek nabarmentzen dira:

- Haurra eta ikaslea da euskal hezkuntza-sistemaren giltzarria, eta ikasle zein haur bakoitzak irteera-profila lortzea da haren helburua. Haur eta ikasle guztiek XXI. mendeko erronkei maila pertsonalean, sozialean eta profesionalean arrakastaz aurre egiteko moduan daudela ziurtatu behar da. Hori guztia testuinguru inklusiboan, segurtasunean eta ongizate emozionalean.
- Eskola da hezkuntza-eraldaketarako ardatza: ikastetxe ahaldundua, lidergo banatua sustatzen duena (antolaketa-kudeaketa, kudeaketa pedagogikoa...) eta hezkuntza-komunitate osoaren ikaskuntzan eta etengabeko hobekuntzan oinarritutako berrikuntza bultzatzen duena. Horretarako, Hezkuntza Sailak eskolen autonomia sustatuko du.
- Maisu-maistrek taldearen eta banakoaren esku-hartze hausnartua eta aktiboa izan behar dute haurren ibilbidean eta ikaskuntza-prozesuan; haien lidergoa finkatuko da ematen duten eremuaren ezagutzan eta aplikatzen dituzten esku-hartze, trebetasun didaktiko eta metodologiko koherenteetan. Gainera, gidari, orientatzaile edo bultzatzaile gisa jardun behar dute ikaskuntza partekatuko edo ikaskuntza autonomoko ekintzetan, bai eta talde-lanera edo kolaborazio-lanera edo proiektu bidezko lanera bideratutako jardueretan edo garapen pertsonalerako, ezagutzen eta trebetasunen hobekuntzarako eta haurren garapen integralerako jardueretan ere.
- Ikaskuntza sakon eta funtzional jakin baterantz bideratzen den konpetentzia-curriculum. Ikasten dena zenbait testuingurutan erabil daiteke, denboran zehar irauten du, eta aukera ematen du egoera errealean problemak ebazteko.
- Hizkuntza-hezkuntza eleaniztunaren kalitatea funtsezkoa da, errealitatea ulertzeko, pentsamendua adierazteko, arrazoitzeko, ezagutza transmititzeko eta mundua ikusi eta ulertzeko eta besteekin harremanetan izateko beharrezkoak diren tresnak eta baliabideak ematen baititu. Gainera, beste arlo batzuen zerbitzura egon behar du.
- Curriculumerako sarbidearen unibertsaltasuna. Guztiek kalitatezko hezkuntza jasotzeko

aukera izatea ekarriko du, eta benetako integrazioarako, aukera-berdintasunerako, erabateko partaidetzarako eta hezkuntzaren arrakastarako bidea finkatuko du. Horretarako, ikaskuntzarako garapen diseinu unibertsala hartuko da aintzat.

- Hezkidetza, eskolen antolaketa pedagogikoaren irizpide orientatzailea den aldetik eta hezkuntza-sistemaren ildo estrategikoa den aldetik, funtsezkoa da, maila eta modalitate guztietan, pertsonen garapena errazteko, sexuaren, sexu-orientazioaren, identitatearen edo genero-adierazpenaren araberako estereotipoen eta rolen kanpo.
- Arreta berezia eskaintzea haurren ongizate emozionalari eta hezkuntza-komunitate osoaren zainketari. Arreta horretan sartzen dira ondo, harmonian eta lasai sentitzearen esperientzia subjektiboa eta zailtasunei aurre egiteak eta modu positiboan gainditzeak sortzen duen gogobetetasun-esperientzia pertsonala. Ongizate emozionala funtsezkoa da ingurumeneko eskaerei eta egoerei (ikaskuntza barne) aurre egiteko edo horietara egokitzeak. Curriculumak ongizate emozionalean lagundu behar du.
- Haurra eta ikaslea da euskal hezkuntza-sistemaren giltzarria, eta ikasle zein haur bakoitzak irteera-profila lortzea da haren helburua. Haur eta ikasle guztiek XXI. mendeko erronkei maila pertsonalean, sozialean eta profesionalean arrakastaz aurre egiteko moduan daudela ziurtatu behar da. Hori guztia testuinguru inklusiboan, segurtasunean eta ongizate emozionalean.
- Eskola da hezkuntza-eraldaketarako ardatza: ikastetxe ahaldundua, lidergo banatua sustatzen duena (antolaketa-kudeaketa, kudeaketa pedagogikoa...) eta hezkuntza-komunitate osoaren ikaskuntzan eta etengabeko hobekuntzan oinarritutako berrikuntza bultzatzen duena. Horretarako, Hezkuntza Sailak eskolen autonomia sustatuko du.
- Maisu-maistrek taldearen eta banakoaren esku-hartze hausnartua eta aktiboa izan behar dute haurren ibilbidean eta ikaskuntza-prozesuan; haien lidergoa finkatuko da ematen duten eremuaren ezagutzan eta aplikatzen dituzten esku-hartze, trebetasun didaktiko eta metodologiko koherenteetan. Gainera, gidari, orientatzaile edo bultzatzaile gisa jardun behar dute ikaskuntza partekatuko edo ikaskuntza autonomoko ekintzetan, bai eta talde-lanera edo kolaborazio-lanera edo proiektu bidezko lanera bideratutako jardueretan edo garapen pertsonalerako, ezagutzen eta trebetasunen hobekuntzarako eta haurren garapen integralerako jardueretan ere.

Hori guztia aintzat hartuta, Euskadiko Eskola Kontseiluari entzun ondoren, eta Eusko Jaurlaritzako Aholku Batzorde Juridikoarekin bat, Hezkuntzako sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 20XXeko XXXX XXan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. kapitulua. Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea eta aplikazio-esparrua.

1. Dekretu honen xedea da berezko identitatea duen Haur Hezkuntza izeneko hezkuntza-etaparen curriculumak ezartzea. Bi ziklotan banatuta dago, eta zero urtetik sei urtera bitarteko hezkuntza, haren ezarpena, ebaluazioa eta garapena biltzen ditu.

2. Euskal Autonomia Erkidegoan irakaskuntza horiek osorik edo zati batean ematen dituzten ikastetxe guztietan izango da aplikatzekoa.

2. artikulua. Definizioak.

Honela ulertu beharko da:

- a. *Helburuak*: hurrek etaparen amaieran erdiestea espero diren lorpenak, funtsezko kompetentziak eskuratzearekin lotuta daudenak.
- b. *Funtsezko kompetentziak*: hurrek arrakastaz aurrera egin dezaten eta beren bizitzan zehar erronka eta desafio nagusiei aurre egin diezaieten ezinbestekotzat jotzen diren jardunak. Pertsona guztiek beren errealizazio eta garapen pertsonalerako behar dituztenak dira, bai eta herritartasun aktiboa, gizarteratzea eta enplegua sustatzeko behar direnak ere.
- c. *Kompetentzia espezifikoak*: ezinbestekotzat jotzen diren esku-hartzeak, espazioak, materialak edota jardunak, hurrek aurrera egin ahal izan dezaten eta bizitzan zehar erronka eta desafio nagusiei aurre egin ahal izan diezaieten. Kompetentzia espezifikoak funtsezko kompetentziak zehazteko elementuak dira.
- d. *Ebaluazio-irizpideak*: ikasteko prozesuaren une jakin batean, eremu bakoitzaren kompetentzia espezifikoetan aipatutako jardueretan edo egoeretan hurrengan espero diren jardun-mailak adierazten dituzten erreferenteak.
- e. *Oinarrizko jakintzak*: eremu baten berezko edukiak osatzen dituzten ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak, horiek eskuratzeko eta garatzeko ikasi behar direnak.
- f. *Ebaluazio hezitzailea*: datuak bildu eta analizatzen dituen prozesua, irakaskuntza zein ikaskuntza hobetzeko erabakiak hartzea ahalbidetzen duena. Prozesu horretan, maisu-maistrek eta hurrek parte-hartu behar dute.
- g. *Ikas-egoerak*: hurrek funtsezko kompetentziekin eta kompetentzia espezifikoekin lotzen diren jarduerak garatzea eskatzen duten espazioak, materialak, egoerak eta jarduerak zein profesionalen esku-hartzeak, kompetentzia horiek eskuratzeko eta garatzeko laguntzen dutenak.
- h. *Ikaskuntzarako diseinu unibertsala (IDU)*: curriculumak garatzeko printzipioen multzoa, haur guztiei hezkuntzarako sarbidean aukera-berdintasuna ematen diena, inklusio eta parte-hartze eraginkorrak lortzeko helburuarekin, ikaskuntzarako oztupoak minimizatuz.

3. artikulua. Haur Hezkuntzaren antolaketa.

1. Haur Hezkuntza borondatezkoa da eta berezko identitatea du. Haurrak jaiotzen diren

urte naturalean hasten da eta, oro har, sei urte betetzen dituztenean amaitzen da.

2. Bi ziklotan antolatzen da: zero urtetik hiru urtera bitartekoa da lehen zikloa, eta hiru urtetik sei urtera bitartekoa bigarrena.
3. Haur Hezkuntzako bi zikloek izaera globala eta integratua dute.
4. Haur Hezkuntzako irakaskuntzak ematen dituzten eskolek dekretu honetan ezartzen diren curriculum-elementuetara egokitu behar dute beren irakaskuntza-praktika, eskola bakoitzak duen autonomia pedagogikoa ezertan galarazi gabe.

4. artikulua. Haur Hezkuntzaren xedeak.

1. Haur Hezkuntzaren xedea da haur guztien garapen integrala eta harmonikoa dimentsio guztietan –fisikoan, emozionalean, sexualean, afektiboan, sozialean, kognitiboan eta artistikoan– lortzen laguntzea, autonomia pertsonala eta beren buruaren irudi doitu eta orekatuaren sorkuntza progresiboa bultzatuz, eta orobat bizikidetzarako balio zibikoetako heziketan laguntzea. Hori guztia, familiekiko kooperazio estuan.
2. Haur Hezkuntzaren xedea erdiesteko, behar-beharrezkoa da:
 - a. Haurraren garapen integrala sustatzea, familiekiko kolaborazioan, haurraren ongizatea, sozializazioa eta hezkuntza kontuan hartuta, haurraren eskubideak errespetatze eta haren potentzialtasun guztiak garatze aldera.
 - b. Prebentzio-hezkuntza eta desberdintasunak gainditzea sustatzea, ahalegin berezia eginez egoera sozial eta pertsonal ahulak bizi dituzten haurrei arreta emateko eta ekitatea bilatzeko.
 - c. Hezkuntza-ekintzaren hasieratik, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan elebitasun orekatua bermatzeko baldintza egokiak ahalbidetzea eta sustatzea.
 - d. Familiei eta legezko tutoreei zerbitzua ematea, adingabeei arreta, zaintza eta heziketa emanez, familiaren eta lanaren kontziliazioa ahalbidetzeko.

5. artikulua. Haur Hezkuntzaren printzipio orokorrak.

1. Etapa honek haurren ongizate fisikoa eta emozionala bermatu eta sustatuko du eskola-esparruan, horrek ekarriko baitu haurrek modu progresiboan pertsona gisa bete-betean garatzea.
2. Haur Hezkuntza globala da, eta haurren arteko ekitatea bermatu behar du. Horretarako, neska-mutilen berdintasuna sustatuko du, eta sexu- eta genero-aniztasuna, etnia- eta arraza- aniztasuna eta jatorri-aniztasuna, gaitasunak eta beste egoera pertsonal eta sozioekonomiko batzuk onartuko ditu, norberaren identitatea eta beste kultura-ekarpen batzuk errespetatuz.
3. Arreta berezia jarriko da haurrentzako arretan eta hezkuntza-orientazioan, autoezagutza, ingurunearen aurkikuntza eta esplorazioa eta komunikazioa sustatzeko, haurren potentzialtasunen garapen handienaren bitartez. Familiekin batera lan egingo

da, beren seme- alaben hezkuntza-prozesuan lagundu dezaten.

4. Haur Hezkuntzan bi zikloen arteko koherentzia mantendu behar da, bien arteko trantsizioa errazagoa izan dadin.
 5. Ekitatearen eta inklusioaren printzipioak bermatze aldera, Haur Hezkuntzaren programazioak, kudeaketak eta garapenak kontuan hartuko dute kultura-, gizarte- eta ekonomia-jatorriko desberdintasunek haurren ikaskuntzan eta bilakaeran dituzten ondorioak konpentsatzea, baita hezkuntza-laguntzako premia espezifikokoak goiz detektatzea eta horiei arreta goiztiarra ematea ere.
 6. Helburu horrekin berarekin, hartzen diren antolaketa-, metodologia- eta curriculum-neurriak Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsalaren printzipioei jarraituko diete.
 7. Hezkuntza-etapa honen bigarren zikloa doakoa izango da.
6. artikulua. Haur Hezkuntzaren printzipio pedagogikoak.
1. Funtsezko konpetentzia guztien garapen integratua eta haur guztien eskola-arrakasta lortzera bideratutako irakasteko eta ikasteko metodologiak inplementatuko dira, inklusibitatearen eta ekitatearen printzipioen barruan.
 2. Etapa honetako bi zikloetan, modu progresiboan hauek hartuko dira kontuan: kudeaketa afektiboa eta emozionala, gorputzaren mugimendua eta kontrol-ohiturak, komunikazio- eta hizkuntza-adierazpenak, bizikidetzarako eta gizarte-harremanetarako oinarrizko jarraibideak, eta ingurunearen, bertan bizi diren izaki bizidunen, eta bizi diren ingurunearen ezaugarri fisiko eta sozialen aurkikuntza eta balorazioa.
 3. Gainera, haurrek autonomia pertsonala eskuratzea eta beren buruaren irudi doituia, orekatua, berdintasunezkoa eta diskriminazio-estereotiporik gabea lantzea sustatuko da.
 4. Adin hauetako hizkuntza eta pertzepzio-modu espezifikoko guztiak garatzeko lan egingo da, haurren potentzialtasun guztiak garatzeko, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioak eta haren

Batzordearen Ohar Orokorrek definitzen duten haurtzaroaren kultura espezifikoarekin bat etorritik.

5. Praktika metodologikoak ikaskuntza-esperientzia esanguratsu eta emozionalki positiboetan, esperimenduetan eta jolasean oinarrituko dira. Afektibitate- eta konfiantza-giroan gauzatuko da, autoestimua eta gizarteratzea indartzeko eta atxikimendu segurua ezartzeko, familia- ingurunetik eskolarako trantsizio progresiboan eta zikloen arteko eta etapen arteko jarraitutasuna bermatzearen alde eginez.
6. Etapa honetako bi zikloetan, modu progresiboan kontuan hartuko dira garapen afektiboa, kudeaketa emozionala, gorputzaren mugimendua eta kontrol-ohiturak, komunikazioaren eta hizkuntzaren adierazpenak, bizikidetzarako eta gizarte-harremanetarako oinarrizko jarraibideak, eta ingurunearen, bertan bizi diren izaki bizidunen eta bizi diren ingurunearen ezaugarri fisiko eta sozialen aurkikuntza. balioetan heztearen alde sartuko da.

7. Era berean, hurrek ingurune naturalean lehenengo esplorazioak eta hurbilketak egitea bultzatuko da. Horrez gain, kontsumo arduratsu eta iraunkorrerako hezkuntza eta osasunaren sustapena eta hezkuntza ere kontuan hartuko dira.
8. Ahozkotasanak zeregin nabarmena du etapa honetan. Bi hizkuntza ofizialak ikastea bultzatuko da, euskara komunikazio-hizkuntza gisa erabiltzearen alde eginez eta haurren familia- hizkuntzetatik euskarara igarotzea erraztuz.
9. Hezkuntza-ekintza inklusiboak askotariko esperientziak, erreferenteak eta ikaskuntzak eskainiko ditu haur guztientzat, kulturarteko ikuspegi globaletik, eta ez etnozentrkotik eta androzentrkotik. Modu pertsonalizatuan egokituko dira haur bakoitzaren eboluzio-unerako eta lan-erritmo pertsonaletarako.

7. artikulua. Haur Hezkuntzaren helburuak.

Haur Hezkuntzak haurrengan honako kompetentzia hauek garatzen lagunduko du:

- a. Norberaren gorputza eta besteena ezagutzea, baita ekimenerako dituen aukerak ere, eta desberdintasunak errespetatzen ezagutzea.
- b. Bere ingurune familiarra, naturala eta soziala behatzea eta arakatzea.
- c. Ohiko jardueretan pixkanaka autonomia lortzea.
- d. Gaitasun emozionalak eta afektiboak garatzea eta haiek erregulatzen hastea.
- e. Besteekin harremanak berdintasunean izatea eta pixkanaka bizikidetzarako eta gizarte- harremanetarako oinarritzko jarraibideak eskuratzea, baita enpatia erabiltzen eta gatazkak modu baketsuan konpontzen trebatzea ere, edozein indarkeria-mota saihestuz.
- f. Komunikazio-trebetasunak garatzea zenbait lengoia eta adierazpidetan.
- g. Bi hizkuntza ofizialetan komunikazio-trebetasun linguistikoak garatzea, euskara komunikazio- hizkuntza gisa erabiltzea bultzatuz.
- h. Trebetasun logiko-matematikoetan, irakurketan eta idazketan, eta mugimenduan, keinuan eta erritmoan hastea.
- i. Estereotipoak gaindituz pertsonen berdintasuna sustatzen duten arau sozialak sustatzea, aplikatzea eta garatzea.

8. artikulua. Hizkuntza-esparrua.

1. Hezkuntza-sistemaren hizkuntza-helburua da haur guztien hizkuntza- eta komunikazio-

trebetasunak garatzea, eleaniztasunaren eta kulturartekotasunaren ikuspegitik. Horretarako, bi hizkuntza ofizialak ikastea sustatuko da, haurren familia-hizkuntzetatik hasita, eta euskara izango da komunikazio-hizkuntza, lehentasunezko tratua ziurtatuz bi hizkuntza ofizialen arteko gizarte-erabileraren desberdintasuna konpentsatzeko.

2. Haur guztiek ez dituzte hizketaren eta hizkuntzaren trebetasunak modu berean eta aldi berean garatzen. Hala ere, denek jarraitzen diete progresio naturaleko edo hizkuntza-trebetasunak menderatzeko etapa batzuei. Hala, Haur Hezkuntzan bi etapa nagusi daude komunikazioaren garapenean: (1) hizkuntza aurreko etapa, etapako lehen zikloari dagokiona eta lehen hitzei edo zeinuei esanahia ematen hasi arte irauten duena; (2) hizkuntzaren etapa, bigarren zikloari dagokiona, hitzak erabiltzen eta perpausak sortzen hasten direnetik komunikazio arrakastatsurako behar diren trebetasunak eskuratzen dituzten aldira arte.
3. Garrantzitsua da haurrek eskolako komunikazioa hizkuntza natural, dibertigarri eta beharrezko gisa ikustea, inguruan duten munduarekin komunikatzeko eta sozializatzeko.
4. Hezkuntza-komunitatearen jarduera guztietan euskara ohiko adierazpen-bidea izatea sustatu eta ziurtatuko da.

9. artikulua. Funtsezko kompetentziak (I. eranskina).

1. Funtsezko kompetentziak dira haurrek arrakastaz aurrera egin dezaten eta beren bizitzan zehar erronka eta desafio nagusiei aurre egin diezaieten ezinbestekotzat jotzen diren jardunak. Haur-etapan, ahaleginak egingo dira funtsezko kompetentzia horiek hurrengo hezkuntza- etapetan bete-betean garatzeko behar diren oinarriak finkatzeko.
2. Pertsonaren garapen integralerako, hezkuntza-jarduerak behar dituen mekanismoak (jarduerak, espazioak, metodologiak, baliabideak...) aintzat hartu eta bermatuko ditu.
3. Funtsezko kompetentziak eraginkortasunez eskuratzeko, eskolek espazioak, materialak zein esku-hartzeak diseinatuko dituzte jarduerak eta egoera integratuak gauzatu daitezzen, hala, haurrek aukera izan dezaten ikaskuntzaren emaitzak aldi berean kompetentzia batean baino gehiagotan hobetzeko bidean aurrera egiteko.
4. Haurrek funtsezko kompetentzia hauek garatuko dituzte:
 - hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia,
 - kompetentzia eleaniztuna,
 - matematikarako kompetentzia eta zientzia, teknologia eta ingeniartzarako kompetentzia,
 - kompetentzia digitala,
 - kompetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa,
 - herritartasunerako kompetentzia,
 - ekintzailtza-kompetentzia,
 - kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako kompetentzia.

10. artikulua. Kompetentzia espezifikoak, ebaluazio-irizpideak eta oinarrizko jakintzak.

1. Eremu bakoitzaren kompetentzia espezifikoak komunak izango dira etapako bi

zikloetarako, baita ebaluazio-irizpideak eta oinarrizko jakintza (III. eranskina) gisa enuntziatutako oinarrizko edukiak ere. Curriculum-elementu horiek orientazio modura ezartzen dira lehen ziklorako, eta, etapako helburuekin batera, bigarren zikloko oinarrizko ikasketak osatzen dituzte.

2. Konpetentziak eskuratzeko eta garatzeko, hezitzaile-taldeak ikas-egoerak ahalbidieratuko dituzten espazio, material eta esku-hartzeak diseinatuko ditu.

2. kapitulua. Curriculuma

11. artikulua. Curriculumaren alderdi orokorrak.

1. Dekretu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, Haur Hezkuntzako irakaskuntzetarako irakasteko eta ikasteko prozesuak zehazten dituzten elementuen arautze edo erregulazioa da curriculuma.
2. Euskal Autonomia Erkidegorako Haur Hezkuntzaren curriculuma dekretu honen II. eranskinean jasotzen dena da.
3. Dekretu honek Haur Hezkuntzako oinarrizko irakaskuntzak taxutzen dituzten curriculumaren oinarrizko alderdiak finkatzen ditu.
4. Haur Hezkuntzaren curriculumak honako alderdi hauek hartzen ditu: helburuak, funtsezko konpetentziak, eremuen konpetentzia espezifikokoak, ebaluazio-irizpideak, oinarrizko jakintzak eta ikas-egoerak ahalbideeratuko dituzten espazio, material eta esku-hartzeen diseinua.
5. Eskolek, beren autonomiaz baliatuz, Haur Hezkuntzaren curriculuma garatu, eta, hala badagokio, osatu egingo dute. Zehaztapen hori Ikastetxearen Curriculum Proiektuaren parte izango da.

12. artikulua. Arloak

1. Haur Hezkuntzako hezkuntza-edukiak haurren esperientziaren eta garapenaren berezko inguruneei dagozkien eremuetan antolatzen dira, eta haurrentzat interesa eta esanahia duten ikaskuntza-proposamen globalizatuen bidez jorratuko dira.
2. Haur Hezkuntzako eremuak honako hauek dira:
 - Harmonian hazten.
 - Ingurunearen aurkikuntza eta araketa.
 - Errealitatearen komunikazioa eta irudikapena.
3. Elkarren artean lotura estua duten esperientziak hartu behar dira arlotzat, eta, beraz, ikas- egoera global, esanguratsu eta estimulatuzaileen konfigurazioa sustatuko duen hezkuntza-

planteamendua beharko da, egoera horiek osatzen dituzten elementu guztien artean harremanak ezartzen lagunduko duena. Egoera horiek berdinen arteko interakzioa sustatu behar dute, eta haurren aniztasuna kontuan hartuko dute, planteamendu inklusiboarekin.

3. kapitulua. Kudeaketa pedagogikoa

13. artikulua. Ikastetxeen autonomia.

1. Hezkuntza-administrazioak ikastetxeen autonomia pedagogikoa eta antolaketa-autonomia sustatuko du, eta maisu-maistren talde-lana eta ikerketa-jarduera bultzatuko ditu, hezkuntza- praktikatik abiatuta. Autonomia egikaritzeak kultura-aldaketa konplexua eskatzen du, eta erabakigarria da ikastetxearen hezkuntza-proiektuak testuinguruan kokatuta diseinatzeko, testuinguruaren beharrei erantzute aldera.
2. Ikastetxeen autonomia islatzen da, adibidez, Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua garatzeko erreferentzia diren proiektu instituzionalen prestaketan.
3. Ikastetxeko zuzendaritza-taldeak gaur egun bi zikloak ematen dituzten ikastetxeetako talde pedagogikoen arteko koordinazioa ziurtatuko du, baita talde horien eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeen edo etaparen artekoa ere.
4. Zuzendaritza-taldeak, halaber, hezkuntza-komunitate osoaren parte-hartzea sustatuko du, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan ezarritako konpromisoak bete daitezen bultzatze aldera.
5. Familien parte-hartzea eta inplikazioa errazte aldera, ikastetxeek eta guraso-elkarteek prestakuntza-ekintzak garatu ahal izango dituzte familientzat, eta, horretarako, curriculumean ezarritako inklusio- eta hezkidetzta-printzipioak kontuan hartuko dituzte.

14. artikulua. Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua.

1. Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuak ikastetxearen autonomiatik landutako hezkuntza-aukera jasotzen duen proposamen integrala barne hartuko du, baita hezkuntza-komunitateak ikastetxe horretan esku-hartzeko prozesua koherentziaz zuzentzeko erreferentzia gisa balio duten jarraibide nagusiak ere.
2. Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuak honako alderdi hauek jasoko ditu: ikastetxearen identitate-printzipioak, ikastetxearen ezaugarriekin eta balioekin; lortu nahi dituen hezkuntza- helburuak, ikastetxearen printzipioen arabekoak; ikasleek lortu behar dituzten funtsezko kompetentziak, haurren ezaugarrien arabekoak; oinarritzko irizpideak eta ildo estrategiko nagusiak; eta jarduteko lehentasunak, hizkuntzaren, curriculumaren eta antolaketaren arloan garatuko direnak –hori guztia ikastetxearen testuinguruaren arabera–.
3. Ikastetxe publikoetako Eskola Kontseiluari edo Ordezkaritza Organo Gorenari edo ituneko ikastetxe pribatuetako titularrari dagokie Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua onartzea. Nolanahi ere, eskola komunitatearen eskura egongo da, publikoa izango da.

15. artikulua. Ordutegia.

1. Haurrak pixkanaka sartuko dira lehen aldiz ikastetxean, eta bertara egokitzeko aldi bat izango dute, behar bezala planifikatua, ikastetxearekiko eta bertan dauden pertsonetikiko atxikimendua sortzen laguntzeko, eta, hartara, haur bakoitzak harreman-ingurune eta -mundu seguru, atsegin eta amultsu gisa hauteman ditzan. Esperientzia bere familia-ingurunearen jarraipen gisa senti dezan.

2. Etapa osoan, ikuspegi globalizatzailea aintzat hartuta antolatuko da eskola-ordutegia, eta zenbait jarduera eta atsedenaldira eta erritmo txandakatzeko aukera emango duten jarduerak barne hartuko ditu, haur bakoitzaren premien arabera egokituko direnak. Elikadura, zainketak, ikasteko prozesuak eta erritmo desberdinak barne hartzen dituzten proposamen edo egoera globalizatzaileak eskainiko dira, ongizate sozioemozionaleko ingurunean.
 3. Zero eta hiru urte bitarteko aldira, familiei zerbitzua emango zaie, familiaren eta lanaren kontziliazioa ahalbidetzeko. Hala ere, eta orokorrean, haurrek ezin izango dute egunean zortzi ordu baino gehiago eman ikastetxean.
 4. Haur Hezkuntzako bigarren zikloko maila bakoitzari urtean 875 ordu dagozkio, gutxienez. Haurraren jarduerak asteleheneratik ostiralera egingo dira, goizez eta arratsaldean, eta maila bakoitzean astean 25 ordu gutxienez izango dira.
 5. Haurren jarduerak ikasgela barruan zein kanpoko esparru irekietan egin beharreko jarduerak bilduko dituzte; azken horiek egunero egingo dira, goizez zein arratsaldean. Gainera, astean behin, naturarekin zuzeneko harremana izaten ahaleginduko dira.
16. artikulua. Familien eta legezko tutoreen inplikazioa eta kolaborazioa hezkuntza-prozesuan.
1. Gurasoek eta legezko tutoreek haurren eskola-hezkuntzaren jarraipena egiteko eta eskola- hezkuntzan parte-hartzeko eskubidea dute.
 2. Gurasoek eta legezko tutoreek hezkuntza-prozesuan lagundu eta parte-hartu beharko dute, eta, hartara, ikastetxeek haurren aurrerabidea errazteko hartzen dituzten laguntza-neurri indargarrietan kolaboratuko dute.
 3. Era berean, ikastetxeek eta familiek edo legezko tutoreek, modu indibidualean, berrikusi eta ezarri ahal izango dituzte hasieran ezarri diren konpromisoak aldatzeari buruzko akordioak, zehazki haurraren hezkuntza- edo bizikidetzaren prozesua hobetzera edo modu indibidualean atzemandako problemak konpontzera bideratzen diren konpromisoak.
17. artikulua. Irakasleen kompetentzia-profila, prestakuntza eta ebaluazioa.
1. Maisu-maistrek kompetentzia-profil bat izan behar dute, beren funtzioei eta zereginei dagozkien erantzukizunak baldintza ezin hobeetan beren gain hartu ahal izateko:
 - a. Haurrak bizitzan zehar kompetentziak garatu ahal izateko prozedurak eta jarrerak irakastea.
 - b. Ikasgelan ikasteko egoeren proposamenak egitea, aplikatzea eta ebaluatzea, curriculumaren funtsezko kompetentzietan eta kompetentzia espezifikoen eta irakasleen ezaugarrietan oinarrituta.
 - c. Irakasteko eta ikasteko prozesuak ikertzea, berritzea, garatzea eta ebaluatzea, horien praktikari eta integratzeko prestakuntza-sareei buruzko hausnarketatik abiatuta.
 - d. Haurrengan ikasteko gogoia motibatzea.

- e. Proposamen didaktikoak haur bakoitzaren premietara doitzea eta egokitzea.
 - f. Beste maisu-maistra eta hezkuntza-eragile batzuekin kooperatzea eta ikastetxearen kudeaketan eta etengabeko hobekuntzan parte-hartzea.
 - g. Jarduerak gure erkidegoko hizkuntza ofizialetan eta, hala badagokio, atzerriko hizkuntzaren batean garatzea, gure hezkuntza-sistema elebiduna eta eleaniztuna dela kontuan hartuta.
 - h. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak curriculumean arreta eta tentu handiz erabiltzea eta integratzea, gaur egun 0 eta 6 urte bitarteko haurrek duten pantailekiko gehiegizko esposizioa kezagarria baita zenbaitetan. Familiek eta legezko tutoreek, bestalde, pantailen inguruan ahalik eta diskrezio eta erantzukizun handienez hezteko betebeharra dute.
 - i. Beren lanbideari eta eragile berritzaile gisa duten gizarte-konpromisoari buruzko ikuspegi etikoa garatzea.
 - j. Problema eta gatazkak modu konstruktiboan ebatzea, haurrek kompetentzia pertsonalak eta harremanetakoak garatzeko tresna gisa erabiliz.
 - k. Beren etengabeko prestakuntza planifikatzea, norberaren praktikari buruzko hausnarketan oinarrituta.
2. Hezkuntza Sailak arazko xedapenen bidez zehaztuko du maisu-maistren kompetentzia-profila.
 3. Maisu-maistren prestakuntzaren helburua da haurrari garapen pertsonal eta afektiboan eta kompetentzien garapenean laguntzeko behar den kompetentzia-profila lortzea. Prestakuntza horrek irakasteko eta ikasteko prozesuen ikerketa, berrikuntza, garapen eta ebaluazioko prozesuak barne hartu behar ditu; horretarako, praktikari buruzko hausnarketatik abiatu behar du, eta prestakuntza-sareetan parte hartzea barne hartu behar du. Prestakuntza-prozesuetan arreta berezia eskainiko zaie hezkuntza inklusiboari, hezkidetzari, aniztasun afektibo-sexualari eta hezkuntza-premia bereziak eta espezifikoak dituzten kolektiboentzako arreta egokiari. Maisu-maistrek beren etengabeko prestakuntza planifikatu beharko dute beren ikastetxearen premien barruan eta beren praktikari, autoebaluazioari, koebaluazioari edo beste ebaluazio-prozesu batzuei buruzko hausnarketa-prozesuen ondorioetatik abiatuta.
 4. Hezkuntzaren arloko sail eskudunak sustatutako prestakuntza-ekintzen planteamenduak ezaugarri hauek ditu: a) ikastetxea prestakuntzarako plangintzaren ardatz gisa ikus dadin sustatzea; b) hezkuntza-ekintzan oinarritzea eta berrikuntza sustatzea, irakaskuntza-praktikari buruzko azterketaren eta hausnarketaren bidez; eta c) profesionalak prestatzea hezkuntza inklusiboa garatzeko, hezkidetzari eta aniztasun afektibo-sexuala sustatzeko eta hezkuntza- laguntzako premia berezi eta espezifikoak dituzten kolektiboari arreta egokia emateko.
 5. Hezkuntza-komunitateko kide guztien koordinazioa eta kooperazioa sustatuko dira ikastetxeko hezkuntza- eta antolaketa-arloetan. Era berean, ingurune beste ikastetxe eta hezkuntza-eragile batzuekin koordinatzeko eta kooperatzeko ekintzak

sustatuko dira. Maisu-maistren prozesu horretan kolaboratu eta inplikatu beharko dute.

6. Maisu-maistren konpetentzien ebaluazioa hezkuntza-arloan eskumena duen sailak egingo du. Ebaluazio horretan maisu-maistrek ere parte-hartuko dute, beren garapen profesionala hobetzen eta ebaluazio horretatik eratorritzen diren prestakuntza-ekintzak planifikatzen laguntzeko.

18. artikulua. Hezkuntza-erantzuna hezkuntza-sistema inklusiboaren esparruan.

1. Eskola inklusiboaren esparruan, haur guztiak dira hezkuntza-arretaren subjektuak, eta, testuinguru arruntan, hezkuntzarako sarbidea bermatzeko eta hezkuntza-arrakasta bermatzeko beharrezkoak diren neurri eta laguntzen onuradun izan behar dute, ekitate- baldintzetan eta aukera-berdintasuneko baldintzetan.
2. Aniztasunari erantzuteko neurriek haurren hezkuntza-premiei erantzun behar diete ingurune normalizatu eta inklusibo batean. Horretarako, ikasleen interesak, motibazioak eta ikasteko gaitasunak kontuan hartuko dira, eta Haur Hezkuntzaren helburuak lortzeko bidea izan behar dute.
3. Aniztasunari erantzuteko neurriak dira ikasteko eta parte hartzeko oztopoak gainditzera zuzentzen diren hezkuntza-jarduketa guztiak. Eskolak ikasleen aniztasunari erantzun diezaion profesionalak erabiltzen duten testuinguruko edozein elementu (pertsonala, antolaketakoa, materiala edo metodologikoa) jotzen da laguntzatzat.
4. Hezkuntza-premiak goiz atzematea oinarritzko jarduketa-printzipio bat da eskolatzearen hasieratik. Irakasle eta hezitzaile guztiek aktiboki parte hartu beharko dute inklusiorako oztopoak goiz atzematen. Hezkuntzaren arloko sail eskudunak onartutako programak eta protokoloak aginduzkoak izango dira, eta funts publikoekin sostengatzen diren ikastetxe guztietan aplikatu beharko dira.
5. Ikastetxeei dagokie Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsalaren ikuspegian oinarritutako bizikidetzatza- eta ikaskuntza-ingurune seguruak sortzea eta etapen eta prestakuntza-ibilbideen arteko trantsizioak eraginkortasunez ziurtatzea ere.

19. artikulua. Trantsizioa.

1. Ikastetxeek koordinazio-mekanismoak eta informazioa eskualdatzeko mekanismoak aurreikusi behar dituzte, zikloen eta etapen arteko trantsizioetan haurren hezkuntza-prozesuaren jarraitutasuna berma dadin, ikastetxez aldatu ala ez, hezkuntza-koherentzia eta prestakuntza-jarraitutasuna ziurtatzeko. Mekanismo horiek, zeinen barruan jatorrizko eta helmugako ikastetxeetako profesionalen arteko kolaborazioak ezartzea sartzen baita, bereziki beharrezkoak dira hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak dituzten haurren kasuan.

4. kapitulua. Ebaluazioa.

20. artikulua. Ikaskuntzen ebaluazioa.

1. Haurren ikaskuntza-prozesuaren ebaluazioa Haur Hezkuntzaren funtsezko osagaia da, eta arretaz planifikatu eta garatu behar da irakasteko eta ikasteko prozesuaren barruan.
2. Ebaluazioa globala, etengabea eta hezitzailea izango da. Zuzeneko behaketa sistematikoa izango da ebaluazio-prozesuaren teknika nagusia.

3. Etapa honetako ebaluazioa haur bakoitzaren hasierako baldintza indibidualak eta bilakaeraren erritmoa eta ezaugarriak identifikatzera bideratuta egongo da. Ondorio horietarako, ziklo bakoitzerako arlo bakoitzean ezarritako ebaluazio-irizpideak hartuko dira erreferentziatzat.
 4. Ebaluazio-prozesuak irakasteko eta ikasteko prozesua hobetzen lagundu beharko du; horretarako, erabilitako estrategia metodologikoen eta baliabideen egokitasuna baloratuko da. Helburu horrekin, inplikaturako profesional guztiek beren hezkuntza-praktika ebaluatuko dute.
 5. Familiek edo legezko tutoreek seme-alaben edo tutoretzapekoen hezkuntza-prozesuaren bilakaeran parte-hartu eta lagundu beharko dute, eta haien ebaluazioari buruzko erabakiak ezagutu beharko dituzte; gainera, ikastetxeek haurren hezkuntza-aurrerapena errazteko hartzen dituzten neurrietan kolaboratu beharko dute.
 6. Maisu-maistrek, haurren ikaskuntzez gain, irakaskuntza-prozesua eta beren praktika ebaluatuko dituzte, curriculumean aurreikusitako konpetentziak lortzeari dagokionez. Gutxienez hiruhileko bakoitzaren amaieran, ziklo bakoitzeko profesional-taldeak ebaluazioaren emaitzak jasoko ditu, eta aldaketak proposatuko ditu edo prozesua bideratzeko erabaki egokiak hartuko ditu.
21. artikulua. Eskola-orientazioaren txosten indibiduala.

1. Tutoreak eskola-orientazioaren txosten indibiduala egingo du, familiei eta legezko tutoreei informazioa emateko. Txosten hori Haur Hezkuntzaren amaieran egingo da, baita ezohiko inguruabarrek hala eskatzen dutenean ere, hala nola zikloz ez igotzean, hezkuntza-premia bereziak dituzten haurren kasuan.
2. Haur Hezkuntza amaitzean egiten den eskola-orientazioaren txosten indibidualak, gutxienez, funtsezko konpetentzien eskuratze-maila adieraziko du, eta haur bakoitzaren hezkuntza-aurrerapena gehien baldintzatzen dutenak azpimarratuko ditu, baita arreta indibidualizatua bermatzeko garrantzitsutzat jotzen diren alderdiak ere.
3. Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzarako trantsizioa errazte aldera, arreta berezia jarriko da bi etapen arteko koordinazioan, ikasleen aurrerapen akademikoan sortu daitezkeen desberdintasun pedagogikoak eta antolaketakoak gainditzeko eta bat ez etortzeak saihesteko.

22. artikulua. Ebaluazio-dokumentu ofizialak.

Ebaluazio-dokumentu ofizialak hauek dira: espediente akademikoa, ziklo amaierako ebaluazio-aktak, historia akademikoa eta, hala badagokio, lekualdaketei buruzko txosten pertsonala.

23. artikulua. Ebaluazio-prozesua gainbegiratzea.

1. Hezkuntza Ikuskaritzari dagokio hala haurren nola irakaskuntzaren ebaluazio-prozesuaren garapena gainbegiratzea.
2. Era berean, Hezkuntza Ikuskaritzak arreta berezia jarriko du hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak dituzten haurren lan-plan indibidualizatuak edo plan horiek egitea eskatzen duen edozein egoera behar bezala prestatzeko, kudeatzeko eta ebaluatzeko.
3. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera,

ikastetxe publikoetako irakaskuntza-jarduna ebaluatzearen helburu nagusia izango da irakaskuntza- jardunaren kalitatea bermatzea, eta irakasleen hobekuntza profesionalerako eta ikasleen hezkuntza-emaitzak hobetzeko neurriak hartzeko aholku ematea.

24. artikulua. Egiazkotasuna, segurtasuna eta konfidentzialtasuna.

1. Haurren datu pertsonalak lortzeari dagokionez eta ikastetxe batzuek beste batzuei datu horien segurtasuna eta konfidentzialtasuna lagatzeari dagokionez, indarrean dagoen datu pertsonalak babesteari buruzko legerian xedatutakoari jarraituko zaio, baita, nolahi ere, maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren hogeita hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoari ere.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA. Ezarpen-egutegia.

Dekretu honetan araututako irakaskuntzei dagokien curriculuma 2022-2023 ikasturtean ezarriko da.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Erlijioaren irakaskuntza.

1. Ikasturtea hasi baino lehen, bigarren zikloko haurren familiek edo, hala badagokio, legezko tutoreek hurrek erlijio-ikasketak jasotzea nahi duten ala ez adieraziko dute.
2. Erlijioaren irakaskuntza gehienez ere astean ordubetez emango da Haur Hezkuntzako bigarren zikloan.
3. Erlijio katolikoaren irakaskuntza Egoitza Santuaren eta Espainiako Estatuaren artean sinatutako irakaskuntza eta Kultura Gaiei buruzko Akordioan ezarritakoari lotuko zaio.
4. Hezkuntza-administrazioek zainduko dute erlijio-irakaskuntzek haur guztien eta haien gurasoen edo legezko tutoreen eskubideak errespetatu dituzaten, eta irakaskuntza horiek jasotzeak edo ez jasotzeak inolako diskriminaziorik eragin ez dezan.
5. Beste erlijio batzuen irakaskuntza, bestalde, Espainiako Estatuak honako erakunde hauekin sinatutako kooperazio-akordioetan xedatutakoari lotuko zaio: Espainiako Erakunde Erlijioso Ebanjelikoen Federazioarekin, Espainiako Komunitate Israeldarren Federazioarekin eta Espainiako Batzorde Islamikoarekin. Era berean, eta hala badagokio, etorkizunean beste erlijio- konfesio batzuekin izenpetu daitezkeen akordioetan xedatutakoari ere lotuko zaio. Izan ere, horiek izango dira Erlijioaren curriculuma zehaztuko dutenak.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen da 237/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena (urtarrilaren 15eko

EHAA).

AZKEN XEDAPENA. Indarrean jartzea.

Dekretu hau indarrean jarriko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko XXXXXXaren XXa. Lehendakaria,

IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Hezkuntzako sailburua. JOKIN BILDARRATZ SORRON